

KONTROL MOZIOA

Altzako kiroldegi berriko lanen jarraipenari buruzkoa

Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2020ko urtarrilaren 17an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Altzako kiroldegi berria egiteko lanak eta ingurunean agertu den amiantoaren kudeaketa desinformazio eta kudeaketa eskasaren eredu izan dira orain arte.

EH Bildu udal taldeak eskatu zuen, irailean, Altzako kiroldegi berriaren lanei eta amiantoz kutsatutako lurren egoerari buruzko batzordea berrabiatzea. Udal Gobernuak eskari hori moldatu egin zuen, eta batzorde ez iraunkorra Altzako kiroldegi berriaren inguruan amiantoz kutsatutako lurzoruei buruzkoa izatera mugatu zuen. Zinegotziaren esanetan, “kiroldegiaren lanek ez dute jarraipen berezirik behar”. Bada, udaltzarrak onartu arren batzordea abian jartzea eta Udaltzaren Organo Araudiak agintzen badu ere gehienez hilabeteko epean abiarazi beharra dagoela, Udaltzako lehendakari Eneko Goia alkateak ez du batzordea eratzeko urratsik egin, EH Bildu udal taldeak gogorarazi dion arte. Eratze bilera hil honen 20an izan da, baina ez du eratzea baino beste gai ordenik izan. Beraz, udal taldeok ez dugu Altzako kiroldegiaren orubean eta haren inguruan amiantoz kutsatutako lurzoruen egoerari jarraipena egiteko modurik izan, oraingoz.

Gainera, otsailaren 4an, Altzako kiroldegi berriaren Obra Kontratuaren aldaketa egin zuen Udal Gobernuak, eta ondorioz, esleipen prezioaren gaineko % 1,45eko garestitzea dakar, “ustekabekoak diren zirkunstantzien ondorioz”, eta % 3,23ko garestitzea aldaketa “ez-funtsezko” dagokienez. Aldaketa horien ondorioz, obra 481.000 € + B.E.Z. garestituko da (ia % 4 gehiago) eta lana amaitzeko epea hiru hilabete luzatuko da. Batzordean galdetu zion zinegotzi honek Udal Gobernuari zein izan den aldaketaren arrazoia, ez altzatarrek ezta talde politikook ere ez genuelako haren berri.

Gogoratu behar da kiroldegi berri bat izateko esperantzan direla herritarrak eta, gaur egun, ordea, kiroldegirik gabe daudela, hastera ikaragarri kostatu zaien eta oso motel doazen lanekin, hautsarekin, eta amiantoz kutsatutako eremu baten eraginpean bizi direla, horrek beren haurren osasunean izan dezakeen eragin kaltegarriarekin. Iaz, gutxienez bi alditan neurtu ziren, airean, erreferentzia neurritik gorako amianto arrastoak, baina Udal Gobernuak ez zuen webgunean eskegitzeaz aparteko beste jakinarazpenik egin. Espero izatekoa zen Udal Gobernuak enpatia handiagoa erakustea gabezia horiek bizi dituzten auzotarrekin, baina batzordearen izaera aldatu izanak eta batzorde berria ez deitu izanak ere ez dute horrelakorik erakusten.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Areago, gogoan izan behar da auzotarrei duela urtebete hitzemandako bilera irekia otsailaren 20an egin zuela Udal Gobernuak. Udalak bilerara ez deitzeko izan duen argudioa izan da berririk ez zegoela auzotarrei azaltzeko, baina batzarrean argi ikusi zenez, altzatarrek hainbat galdera, kexa eta eskari zituzten Udalari egiteko, eta suminduta azaldu ziren Udalaren partetik izan duten desinformazioa dela eta. Urte honetan, behin baino gehiagotan adierazi izan diegu Parte Hartzeko zuzendariari eta Kiroletako zinegotzi ordezkariari ez zela kontua Udal Gobernuak ba ote daukan gogorik edo edukirik auzotarrei kontatzeko, baizik eta auzotarrek badituztela kezka eta zalantza Udal Gobernuari helarazteko. Horregatik, zinegotzi honek azpimarratu zion, batzordean, Gune Publikoetako zinegotziari, Udal Gobernuak gardenagoa izan behar duela.

Bestalde, amiantoaren eta kiroldegiko lanen kudeaketak eskasak izan dira. Batetik, hilaren 17ko batzordean, Gune Publikoetako zinegotziak adierazi arren amiantoarekin egin den kudeaketa "eredugarria" izan dela, altzatarrek kezkatuta azaldu ziren hilaren 20 batzarrean. Herritarrei esan izan zaie kiroldegiaren orubean ez zegoela amiantorik, baina 2.800 m³ lur kutsatu atera dira bertatik (18 m³-ko 155 bolquete-kamioi). Hain zuzen ere, lur kutsatu horiek eraman dira ezbeharrak izan duen Zaldibarko zabortegira, eta jakin direnak jakinda, zalantza dugu kontrolatu ote den bete dela hondakinak biltegitratzeaz 49/2009 Dekretuak ezarritakoa. Zaldibarko kasuak ere Larresen estalitako lurren egonkortasunaren inguruko kezka sorrarazi du auzotarrengan, eta horrela adierazi zuten batzarrean. Hain zuzen ere, urrian, zinegotzi honek eskatu zion Ingurumeneko zinegotzi ordezkariari plan bat zehaztea egonkortasuna zaintzeko, baina afera hori kitatuta zegoela erantzun zuen.

Eta bestetik, auzoan egin diren beste herri lan batzuetan erakutsitako utzikeriarekin jarraitzen du Udal Gobernuak. Hainbat dira auzo berean 2016tik egiten ari diren herri lanak (Harria parkea, Larres eremua estaltzea eta ikastetxeko estalpea), eta eragin kaltegarriak pilatzen ari dira: atzerapenak, akatsak, airearen kalitatea apaltzea, kalteak inguruko ekonomian, aparkalekuak galtzea... 2016ko azaroaren 16tik (hiru urte pasa) kiroldegirik gabe daude altzatarrek, eta ez dakite noizko izango duten. Joan den asteko batzarrean, altzatarrek beren haserrea adierazi zuten kiroldegia eraikitzeko lanak oso motel doazelako. Suminduta agertu ziren jakin dutelako obrako langileak baldintza prekariotan aritu direla orain arte, eta irregulartasunak eta faltsutzeak egon direla. Herritarrek demanda egin zioten Udal Gobernuari, egitasmoaren jabea bera izanik, egiten utzi diolako aldi baterako enpresa taldeari, esku hartu gabe salaketa publiko egin den arte.

Hilaren 17ko batzordean, Gune Publikoetako zinegotziak azaldu zuen atzerapenen eta garestitzearen arrazoia izan dela zenbait hobekuntza tekniko egin izana. Auzotarrek nabari duten moteltasuna eta atzerapena obrako langileek eta lan ikuskaritzak salatutako irregulartasunek eragin ote dituzten galdetuta, ez zuen deus adierazi. Era berean, hilaren 20ko batzarrean, azaldu zuen 2021eko udan irekiko dela instalazio berria, baina herritarrek sinesgogor agertu ziren, ikusitakoak ikusita.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

KONTROL MOZIOA:

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Altzako kiroldegi berriko lanen eta amiantoaren egoerak ezagutarazteko altzatarrei, etxe guztietara iritsiko den publikazio baten bidez, zehaztuz: lanen mementoko egoera eta egiteke dagoenaren kronograma, amiantoaren kudeaketaren egungo egoeraren inguruko argibideak, eta harremanetarako eta iradokizunetarako bideak.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eskegi ditzala bere webgunean, Altzako kiroldegiko orubean eta inguruko lurretan, 2019ko ekainetik gaurdaino egindako amiantoaren neurketak, baita bertan azaldutako amiantoarekin egindako kudeaketaren kontakizun zehatza ere.
- 3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Altzako kiroldegi berriko lanetan izan diren laneko irregulartasunak zuzentzeko; beharrezko neurriak hartuz aldi baterako enpresa taldeak obrako kontratuan sinatutako konpromisoak bete ditzan: egin dituen akats guztiak zuzendu, orain arteko langileei zor zaien guztia ordaindu, langile berriei Gipuzkoako hitzarmeneko baldintzak ziurtatu eta abar.
- 4.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Altzako kiroldegi berriko lanen eta hari lotutako gaiei (aparkalekua, amiantoa, arazoak...) jarraipena egitea altzatarrekin, gutxienez hiru hilean behin egingo diren bilera irekiak deituta.
- 5.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Altzako kiroldegi berriko lanen eta amiantoarekin egindako kudeaketaren balorazio txosten bat egitea, eta txosten hori helaraz diezaiola Ekialdeko Barrutiaren Udal Batzarrari.

Donostian, 2020ko otsailaren 21ean



Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia